



**IBILIAZ EZAGUTU:**  
**BIZKAIKO TXAKOLIN ETA SAGARDOAREN BIDEAK**  
**Zailtasun ertaineko ibilbideak**



**Apirilaren 13an, Zornotza - Berroja (Muxika) (13,4 km)**

**Zailtasuna: Ertaina**


Zornotzatik iparrerantz joko dugu, eta ibilbide honetan oso auzo esanguratsuak igaroko ditugu: Epaltza, Esturo, Ibarruri, Ajuria...  
Zornotzatik hurren dauden upeldegietariko bat bisitatuko dugu bidenabar.



**Apirilaren 20an, Artaun - Montorra (9,5 km)**

**Zailtasuna: Ertaina**


Bigarren ibilaldi honetan mahastiak alde batera utzi eta sagardotegi bat bisitatuko dugu.  
Horretarako, Aramotz mendilerroa zeharkatu beharko da, eta apurka-apurka Montorrrantz jaitsi, sagarren mundua hurbilagotik ezagutzeko.



### **Maiatzaren 4an: Jata - Gaztelugatxe (12,5 km)**

**Zailtasuna: Ertaina**

Bizkaiko txakolinaz bagabiltza, ezinbestekoa da Bakio aldera txango joatea. Ibilbide honetan inguru horiek ezagutzeaz gain, bertako txakolindegia zaharrenetariko bat ikusiko dugu, eta inguru paregabea emango diogu amaiera irteerari.



### **Maiatzaren 11n: Gizaburuaga - Mendexa (12 km)**

**Zailtasuna: Ertaina**

Bizkaiko mendebaldeko txakolina ikusi eta gero, ekialdera jo eta bertako mahastiak ikusiko ditugu. Horretarako, Lea-Artibaiko eskualdean zehar egingo dugu ibilaldia, itsasoaren gainean amaitzeko.

Ibilaldiei amaiera emateko, Mendexako txakolindegia batean bazkaltzera geratzeko aukera izango da.

**Informazioa eta testuak: Jokin Berrio**

## BIZKAIKO TXAKOLIN ETA SAGARDOAREN BIDEAK EZAGUTZEN



Euskal Herriko edari hauek ezagutarazteko lau ibilbide prestatu ditugu Bizkaiko bihotzean barrena. Bere osotasunean ezagutuko ditugu Bizkaiko txakolina eta sagardoa egiteko prozesuak. Jakingo dugu zergatik den txakolina txakolin, zelan gure sagardoa sagarrez egindako alkoholdun edaria den. Ikusi ahalko dugu Bizkaia lurralde txikia bada ere, inguru bakoitzak bere bereizgarriak dituela: lurzoruak, kokalekua, mikroklima, mahats eta sagar motak, lurra prestatzeko trikimailuak, zukuak lantzeko moduak... Eta beste hainbat gauza interesgarri.

Gidari euskaldunak bidelagun izango ditugun lau ibilaldi hauetan inguruko ondarearen aniztasunaz gozatu ahal izango gara.

**Nahi duenak, azken egunean, txakolinaren dastaketan eta bazkarian parte har dezake Mendexako txakolindegian (Informazioa eskatu Asier gidariari).**

Autobus zerbitzua izango da, Gudari kaleko autobus geltokitik, ibilbidearen hasiera puntuetara mugitu eta amaiera puntuetatik etortzeko.

Irteera ordua, goizeko 8:30  
Gudari kaleko autobus geltokia

*Cuatro salidas para, además de caminar, conocer el txakoli y la sidra que se elaboran en Bizkaia, con las diferentes características de cada zona: tipo de tierra, localización, microclima, trucos para mejorar la tierra, forma de elaboración... Y otros muchos aspectos interesantes.*

**Quien lo desee, podrá participar en la cata y posterior comida que se propone para la última salida, en Mendexa (Solicitar información a Asier, el guía).**

*En estas cuatro excursiones, acompañados de guías euskaldunes, contaremos con servicio de autobús para los desplazamientos a los lugares de comienzo o finalización de las etapas.*

*Hora de salida: 8:30*

*Parada de autobús de la calle Gudari*

Izen-abizenak:.....  
Adina: ..... Telefonoa:..... e-posta:.....

Zein etapa egin nahi duzu?

Apirilaren 13an: Zornotza -Berroja

Apirilaren 20an: Artaun – Montorra

Maiatzaren 4an: Jata - Gaztelugatxe

Maiatzaren 11n: Gizaburuaga - Mendexa

Izena-emateko: Zelaieta zentroko erregistroan.

Ibilaldi 1 edo 2: 6 €

3 edo 4 ibilaldi: 10 €